


Euskal AEko industria-prezioek % 1,9 egin dute gora 2022ko urrian, aurreko hilabetearen aldean

2021eko urriarekin alderatuta, industria-prezioek % 21,8 egin dute gora

Euskal AEko industria-prezioek % 1,9 egin dute gora 2022ko urrian, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Urriko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 21,8koa da.

Analisi zehatzago batek agerian jartzen du 2022ko urrian honako sektore hauek izan dituztela hazkuntza handienak: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoen industria* (% 8,1), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 7,9) eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 2,4). Prezioetan honako sektore hauek izan dituzte hilen arteko beherakadak: *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 2,3) eta *Industria kimikoa* (% 1,5).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helmuga ekonomikoaren araberako ondasunen sailkapenarekin jarraitzeko, prezioen aldakuntzak, 2022ko irailarekin alderatuta, guztiak izan dira positiboak. *Energiaren* prezioek % 5,9 egin dute gora, *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 2,1, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 2,4 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 0,4 igo direlako. *Bitarteko ondasunek* % 0,7 egin dute gora eta, azkenik, *Ekipo-ondasunetan* % 0,1eko igoera izan da.

Urte arteko terminoetan, 2022ko urrian, 2021eko urriaren aldean, prezioen igoera handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 47,4), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 42,2), eta *Industria kimikoa* (% 26,1eko igoera, *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* adarrean bezala).

Prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da helmuga ekonomikoaren araberako ondasun-talde handi guztietan. *Energiaren* prezioak % 46,6 egin du gora, *Bitarteko ondasunenak* % 19,1 eta *Ekipo-ondasunenak* % 4,5. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 12,1eko hazkundea izan dute prezioetan, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 13,2 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 5,0 igo direlako.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	137,9	1,9	21,8
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	113,7	1,0	5,4
Manufaktura-industria	131,5	1,9	17,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	124,5	2,4	14,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,6	8,1	3,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	140,6	0,2	26,1
Kokeak eta petrolio fintzen	181,5	7,9	42,2
Industria kimikoa	153,3	-1,5	26,1
Botiken fabrikazioa	122,0	1,5	10,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	110,2	0,6	9,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	141,1	1,0	21,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	117,4	-2,3	1,7
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	112,9	0,1	5,1
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,9	0,2	4,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	106,8	0,6	2,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	113,4	0,2	4,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	177,3	2,0	47,4
Ura	123,0	1,2	9,3
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	122,9	2,1	12,1
Kontsumoondasun iraunkorrak	112,0	0,4	5,0
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	124,7	2,4	13,2
Ekipo-ondasunak	113,1	0,1	4,5
Bitarteko ondasunak	132,8	0,7	19,1
Energia	186,0	5,9	46,6

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, urriko indizea laginaren % **92,14**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62